ARABAKO FORU ALDUNDIKO GIZARTE POLITIKEN SAILARI ATXIKITAKO GIZARTE ONGIZATERAKO FORU ERAKUNDEAREN, GASTEIZKO UDALAREN ETA "ARABAKO GORRAK" ARABAKO PERTSONA GORREN ELKARTEAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA, ZEINU-HIZKUNTZAKO INTERPRETEEN ZERBITZUA EMATEKO

Vitoria-Gasteizen, 2023ko irailaren 26an.

Alde batetik, Maider Etxebarría García andrea, Gasteizko Udaleko alkatea.

Bestetik, Gorka Urtaran Aguirre jauna, Gizarte Politiken foru-diputatua eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Administrazio Kontseiluko presidentea —ekainaren 20ko 21/1988 Foru Arauaren bidez sortu zen erakunde hori—, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen izenean eta hura ordezkatzuz, Diputatu Nagusiaren uztailaren 5eko 153/2023 Foru Dekretuaren bidez egindako izendapenaren ildotik, eta Arabako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluaren apirilaren 3ko 25/2012 Foru Dekretuak —zeinak Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Egitura eta Funtzionamenduaren Erregelamendua onesten baitu— emandako ahalmenez baliatuz.

Bestetik, Ricardo Pérez Santos jauna, "ARABAKO GORRAK" Arabako pertsona gorren elkarteko presidentea.

Aldeak beren karguei dagozkien eskumenak direla medio agertu dira, eta agiri hau izenpetzeko ahalmena aitortzen diote elkarri.

ADIERAZTEN DUTE

Lehena. Euskal Autonomia Erkidego osorako erakundeen eta bertako lurralde historikoetako foru erakundeen arteko harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legean xedatutakoaren arabera, Arabako Foru Aldundiaren eskumenetako bat da autonomia erkidego osorako erakundeek gizarte-laguntzaren arloan emandako legeria bere lurraldean betearaztea.

Bigarrena. Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politiken Sailak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekiko konpromisoa du, eta bere helburuen artean du berari dagokion eskumen-esparruaren barruan gizarte-zerbitzuak antolatu, kudeatu, eman eta betearaztea, eta, zehazki, entzumen-desgaitasuna duten Arabako pertsonen kolektiboari arreta emateko xede duten zerbitzuak, pertsona horien bizi-kalitatea hobetzen ahaleginduz, komunitatean parte har dezaten eta erabat integratu daitezen. Eskumen horiek Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea izeneko erakunde autonomoaren bidez gauzatzen ditu.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



ASOCIACIÓN DE PERSONAS SORDAS DE ÁLAVA
ARABAKO PERTSONA GORREN ELKARTEA

"ARABAKO GORRAK"
Palencia, 6 bajo • Tfno. • Fax: 945 28 69 48
E-mail: arabakogorak@telefonica.net
01002 VITORIA-GASTEIZ

Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava

Hirugarrena. Gasteizko Udalak, bere gizarte politikaren barruan, helburutzat du aniztasuna, ekitatea eta ordezkagarritasuna —maila indibidualean nahiz kolektiboan— aitortzera bideratutako jarduerak sustatzen dituzten kolektiboei bultzada ematea eta garatzen laguntzea.

Horren haritik, Alkatetzaren, Erakunde Harremanen eta Berdintasunaren Sailari atxikitako Bizikidetza eta Aniztasun Zerbitzuaren helburuetako bat da Gasteizen bizi diren pertsona guztien eskubideak aitortu, babestu eta bermatzea, tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioak oztokatzen dituzten eragozpenak desagerrarazteko jarduerak bultzatuz, eta eremu guztietan irisgarritasun unibertsala eta autonomia pertsonala sustatuz, besteak beste, gizarte-sarea indartuz.

Laugarrena. Arabako Pertsona Gorren Elkarte (aurrerantzean, ARABAKO GORRAK) irabazi-asmorik gabeko elkarte pribatu bat da, 1972an sortua, eta, besteak beste, helburu hauek ditu: gorren eskubideak lortzeko eta pertsona horiek bizitzako esparru guztietan (hezkuntzan, lanean, gizartean, familian, etab.) integratzeko lan egitea, arreta berezia emanez komunikazio-oztopoak kentzeko eta zeinu-hizkuntza sustatu eta zabaltzeko, urriaren 23ko 27/2007 Legean ofizialki aitortu baitzen gorren komunitatearen funtsezko zutabea dela; orobat, gorrekiko harremana bultzatzea, lotura- eta bizikidetza-harremanak sortuz, eta erakunde publikoen eta pribatuen arteko harremanak sustatzea, elkarteak aurrera egin dezan aipatutako helburuak lortzeko. Gorren kolektiboari zuzendutako hainbat programa garatzen dihardu elkarteak.

Bosgarrena. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politiken Sailari atxikitako erakunde autonomoa, eta ARABAKO GORRAK lankidetzan ari dira 2003ko martxoaren 14az geroztik, ondoz ondoko hitzarmenen bidez, zeinu-hizkuntzako interpreteen zerbitzu bat emateko, entzumen-desgaitasuna duten Arabako pertsonen kolektiboari gizartean gainerako herritarren baldintza berberetan parte hartzea bermatzeko. Horretarako sinatutako azken hitzarmena 2022ko martxoaren 30ekoa da.

Seigarrena. Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak ezartzen dituen printzipio orokorretako bat erantzukizun publikoarena da; orobat, elkarren arteko koordinazioaren eta lankidetzaren printzipio orokorra ezartzen du, baita irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekimenarekin ere. Era berean, zioen azalpenean adierazten du gizarte zerbitzuek beren jarduna egokitu behar dutela emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerantz aurrera egitearekin lotutako gizarte-aldaketetara, emakumeei gizarteratzen lagunduko dieten jarduerak eta zerbitzuak bultzatuz.

Zazpigarrena. Dirulaguntza izenduna emateko hitzarmen hau indarrean dagoen Gasteizko Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoan (2022-2024) dago jasota, zeina 2022ko urtarrilaren 21ean onetsi baitzuen Tokiko Gobernu Batzarrek. Hitzarmenaren helburua bizikidetza modu partekatuan sustatzea da.

Zortzigarrena. Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrek 2023ko irailaren 21ean egindako ezohiko bilkuran hartutako erabakiaren bidez, Arabako Foru Aldundiaren, Gasteizko Udalaren eta ARABAKO GORRAK elkartearen arteko lankidetza-hitzarmen berri bat sinatzea onetsi zen.

Bederatzigarrena. Alde guztiek uste dute lankidetzarako tresna bat ezartzea dela bitarteko egokiena elkarteari funtzionamenduan eta ekintzen garapen eta jarraipenean laguntzeko, eta, orobat, ados daude



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



ASOCIACIÓN DE PERSONAS SORDAS DE ÁLAVA
ARABAKO PERTSONA GORREN ELKARTEA

"ARABAKO GORRAK"
Palencia, 6 bajo • Tfno. • Fax: 945 28 69 48
E-mail: arabakogorak@telefonica.net
01002 VITORIA-GASTEIZ

Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava

lankidetzatza horren mamiarekin. Beraz, hitzarmen hau sinatzea erabaki dute, klausula hauek aintzat harturik:

KLAUSULAK

Lehen.- Dokumentu honen xedea da Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politiketako Sailari atxikitako erakunde autonomo Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen, Gasteizko Udalaren eta ARABAKO GORRAK elkartearen artean lankidetzan aritzeko mekanismoak ezartzea, zeinu-hizkuntzako interprete-zerbitzu bat emateko, zeinak bermatuko baitu entzumen-desgaitasuna duten Arabako pertsonen eguneroko gizarte-bizitzan gainerako herritarren baldintza berberetan parte hartzea.

Bigarren.- ARABAKO GORRAK elkarteak hitzarmen honen esparruan garatu beharreko programa zeinu-hizkuntzako interpreteen zerbitzua ematea izango da. Dokumentu honen eranskin gisa doan proiektuan deskribatzen da zerbitzua; beraz, proiektua dokumentuaren parte izango da.

ARABAKO GORRAK elkarteak eman beharreko zerbitzuak barne hartzen du bi erakundeetako profesionalei SILSeri (zeinu-hizkuntza espainiarreko interpreteen zerbitzua) buruzko prestakuntza eta zabalkundea ematea, baita entzumen-desgaitasuna izanik zeinu-hizkuntza erabiltzen duten pertsonen harremanetan zerbitzua egoki erabiltzeari buruzkoa ere.

Hirugarren.- ARABAKO GORRAK elkarteak hitzematen du hitzarmen honek irauten duen bitartean bi aldeek adostutako langileak jarriko dituela hitzarmenaren funtzionamendu egokirako, baita hitzarmenaren kudeaketa ekonomikoa garatzeko ere.

Hitzarmen hau sinatzean, elkarteak lehen aipatutako programari atxikitako langileak identifikatu beharko ditu, haien lanbide-kategoria eta lanaldiko dedikazioaren ehunekoa adieraziz.

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea —eta Foru Administrazioa, oro har— eta Gasteizko Udala ez dira, inola ere, hitzarmen hau gauzatetik erator daitezkeen lan-betebeharren erantzule izango, eta ARABAKO GORRAK elkartearen erantzukizun eksklusiboa izango da langileen eta, halakorik bada, beren borondatez elkarrekin lankidetzan aritzen diren pertsonen lan-harremanari eta lan-antolamenduari dagokion guztia.

Laugarren.- ARABAKO GORRAK elkarteak hitzematen du programak gauzatzearekin eta horretarako izendatutako langileekin lotuta sortzen den edozein aldaketaren berri emango diela Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari eta Gasteizko Udalari. Aldaketak dokumentu honetan onartutako aurrekontutik desbideratzea badakar, GOFeri eta Gasteizko Udalari jakinarazi beharko zaie, eta beste aurrekontu bat bidali, aldaketak jasoko dituen. Nolanahi ere, hitzarmen honetan edozein aldaketa egiteko, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen eta Gasteizko Udaleko Alkatetzaren, Erakunde Harremanen eta Berdintasunaren Sailaren berariazko baimena lortu beharko da aldez aurretik.

Bosgarren.- ARABAKO GORRAK elkarteak konpromisoa hartzen du hitzarmen honen hasieratik eta indarraldi osoan egunean izango dituela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, eta Foru Administrazioari dirulaguntzak itzultzeari dagozkion betebeharrak egunean izango dituela. Halaber, adierazten du ez duela Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrean aurreikusitako debekurik, eta ez duela



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



ASOCIACIÓN DE PERSONAS SORDAS DE ÁLAVA
ARABAKO PERTSONA GORREN ELKARTEA

"ARABAKO GORRAK"
Palencia, 6 bajo • Tfno. • Fax: 945 28 69 48
E-mail: arabakogorak@telefonica.net
01002 VITORIA-GASTEIZ

Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava

zehapen irmorik langileen eskubideen aurkako delituengatik, ezta aukera-berdintasunaren arloko arau-hauste larria edo gizarte-arloko arau-hauste oso larria egiteagatik ere.

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak ofizioz eskatuko dio Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiari erakunde eskatzaileak Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria, eta Foru Ogasunari, zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria, behar beste aldiz. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak aipatutako dokumentazioa eskatzearen aurka agertzen bada elkarteak, elkarteak berak aurkeztu beharko du dokumentazio hori eskabidearekin batera, eskatzen zaion guztietan.

Seigarrena.- Hitzarmen honen xede den programaren gastu-aurrekontua, zeina ARABAKO GORRAK elkarteak aurkeztu eta eranskin gisa atxiki baita, HIRUROGEITA BOST MILA ZAZPIEHUN ETA HAMAIIKA EURO ETA BERROGEITA SEI ZENTIMO (65.771,46 €) izango da 2023ko aldirako. Finantzaketa publikoa izango du programak, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen aldetik, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen 2023ko aurrekontuan onartutako zenbatekoen arabera (81203.G/231813/48100822 "Arabako Gorraak elkarteak: zeinu-hizkuntzako interpreteen programa"), eta Gasteizko Udalaren aldetik, 2023ko aurrekontuan onartutako zenbatekoen arabera (01.81.2361.4.8128 "Arabako Gorraak hitzarmena" partidaren kargura). Gehieneko zenbateko hauek ordainduko dira:

- Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politiken Saila..... 27.990,00 €
- Gasteizko Udala22.000,00 €

Hitzarmen honek irauten duen bitartean, ez da bidezkoa GOFEk finantzatu beharreko gehieneko zenbatekoak berrikustea prezioen aldaketen ondorioz, Espainiako Ekonomiaren Desindexazioari buruzko 2/2015 Legean zehazten den bezala.

Zazpigarrena. Aurreko klausulan jasotako ekarpena bi hilean behin ordainduko dio Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak ARABAKO GORRAK elkarteari, epe bakoitzaren lehenengo 30 egunen barruan, honela:

- Lehen bihilekoan 2,75 hilekori dagokien zenbatekoa ordainduko da.
- Bigarren, hirugarren, laugarren eta bosgarren bihilekoetan, 2 hilekori dagokien zenbatekoa ordainduko da.
- Seigarren bihilekoan, hilabete bati dagokion zenbatekoa ordainduko da.
- Azken likidazioa egiten den unean, dagozkion zenbatekoak erregularizatuko dira.

Hitzarmen hau sinatu eta hurrengo 15 egunetan, bidezkoak diren zenbatekoak erregularizatuko dira.

Elkarteak hala eskatzen badu, eta agiri bidez justifikatutako arrazoirik badago eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak ontzat ematen badu, aurreko paragrafoan jasotakoez bestelako aparteko aurrerakinak eman ahal izango dira. Aurrerakin arruntak eta apartekoak batuz uneko ekitaldiko abenduaren 31n ateratzen den aurreratutako guztizko kopurua ezingo da izan dagokion ekitaldian aurrerakin arruntan bidez lor daitezkeen zenbatekoak baino handiagoa. Horregatik, behin aparteko aurrerakin bat ematen denean, aurrerakin hori zati berdinetan deskontatuko da laguntza ematen den unean ohiko aurrerakinetatik ordaintzeke geratzen diren kopuruetatik.

Gasteizko Udalak, bere aldetik, bi ordainketatan ordainduko du dirulaguntza: hitzarmena sinatzen



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



ASOCIACIÓN DE PERSONAS SORDAS DE ÁLAVA
ARABAKO PERTSONA GORREN ELKARTEA

"ARABAKO GORRAK"
Palencia, 6 bajo • Tfno. • Fax: 945 28 69 48
E-mail: arabakogorak@telefonica.net
01002 VITORIA-GASTEIZ

Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava

denean, dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoaren % 80 ordainduko da, eta gainerako % 20a, dirulaguntza hori behar bezala justifikatu ondoren.

Zortzigarrena.- Seigarren klausulan jasotako ekarpenaren zenbatekoa ezin izango da izan programa kudeatzen duen entitateak gauzatu beharreko jardueraren kostua baino handiagoa, ezta haren zenbatekoaren eta edozein administrazio publikok, erakunde publikok zein erakunde pribatuk — estatukoa zein nazioartekoa— emandako beste ekarpen, dirulaguntza edo laguntza batzuen zenbatekoaren batura baino handiagoa ere.

Halaber, elkarteak beste edozein dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide jaso badu diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari jakinarazi beharko dio.

Bederatzigarrena.- Azpikontratazioa baimentzen da, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 27. artikulua eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 29. artikulua eta hurrengo arabera.

Behin hitzarmena formalizatuta elkarteak azpikontratarik egiten badu berarekin lotura duten erakundeekin, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 68. artikulua baldintzetan, GOFaren alde aurreko baimena lortu beharko da. Horretarako, azpikontratatu aurretik, GOFeren zuzendari-kudeatzaileari aurkeztuko dio lotutako erakunde batekin azpikontratatzeko baimen-eskabidea, honako hauek jasoko dituen:

- Azpikontratatu beharreko jardueraren zehaztapena.
- Azpikontratatu beharreko hirugarrena.
- Lotura mota.
- Azpikontratatu beharreko jardueraren zenbatekoa.

Gasteizko Udalean, Alkatetzaren, Erakunde Harremanen eta Berdintasunaren Saileko zinegotzi ordezkariaren esku uzten da diruz lagundutako jarduerak azpikontratatzeko eta eskatzailearekin lotura duten pertsona edo entitateekin gauzatzeko baimena emateko eskumena.

Zehazki, baimena ematen da lotutako erakunde hauekin azpikontratatzeko:

ENTITATEA	LOTURA MOTA	JARDUERA	URTEKO ZENBATEKOA
E. GorraK	Zeinu-hizkuntzako interpreteen zerbitzua ematea	Zerbitzurako langileak hornitzeko laguntza	10.200 €

Hamargarrena. Hitzarmena likidatzeko eta egindako gastua eta ordainketa hitzarmenaren xedearekin eta aurrekontuarekin bat datozela egiaztatzeko, ARABAKO GORRAKek honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu, beranduenez ere aurtengo ekitaldiko abenduaren 31n:

3) GOFeri:



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



ASOCIACIÓN DE PERSONAS SORDAS DE ÁLAVA
ARABAKO PERTSONA GORREN ELKARTEA

"ARABAKO GORRAK"
Palencia, 6 bajo • Tfno. • Fax: 945 28 69 48
E-mail: arabakogorak@telefonica.net
01002 VITORIA-GASTEIZ

Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava

1.- Egindako ekintzen deskribapen-memoria eta urteko ebaluazioa: zerbitzuak eskatzen dituzten pertsonen kopurua, egindako eta ukatutako zerbitzuen kopurua eta mota, kausak eta urteko ebaluazioa, egindako jarduerak, gorabeherak eta lortutako emaitzak adierazita. Informazioa sexuaren arabera bereizita aurkeztuko da.

2.- Finantzatutako jardueren kostua justifikatzeko memoria ekonomikoa, hauek barne:

- o) Hitzarmenaren aurrekontuaren egikaritze ekonomikoa azaltzen duen dokumentua, gertatutako desbideratze posible guztiak jasotzen dituen.
- p) CIPRES ereduak beteta, liburu nagusia ere aurkeztuta.
- q) Ekitaldi osoari dagozkion fakturak edo baliokideak; GOFek hitzarmenean finantzatutako zenbatekoaren arabera, honela aurkeztuko dira:
 - 60.000,00 eurotik beherako finantzaketa bada, fakturen fotokopiak, horien zenbatekoa 300 eurotik beherakoa denean, eta gainerako kasuetan, jatorrizkoak eta kopiak, erkatzeko.
 - 60.000,00 eurotik gorako finantzaketa bada, jatorrizko fakturak eta horien kopia, erkatzeko.
- r) Fakturen ordainketa-egiaztagiria, zenbatekoa 300 eurotik gorakoa denean. Iruzuraren aurka Borrokatzeko urriaren 29ko 7/2012 Legearen 7. artikulua xedatzen duenez, ez dira onartuko indarreko araudian ezarritako zenbatekoa edo handiagoa duten eragiketen eskudiruzko ordainketak, edo atzerriko monetako kontrabaloia dutenak. Arestian aipatutako zenbatekoa kalkulatzeko, hirugarren beraren aldeko eragiketa edo ordainketa guztien zenbatekoak batuko dira, baldin eta ondasun-ematea edo zerbitzu-prestazioa zatikatu bada.
Ordainketak 2024ko urtarrilaren 31ra arte egin ahal izango dira.
Salbuespen gisa, eta aldez aurretik justifikatuta, 2023an fakturatutako gastuak izanik 2024ko otsailaren 15a baino lehen ordaindutakoak onartuko dira, zerbitzuaren hornitzaileak zehaztutako kobrantza-data hamabostaldi horren barruan badago.
- s) Hala badagokio, hiri-higiezinaren errentamendutik eratorritako etekinen atxikipenen eta konturako sarreraren urteko laburpena (180 eredu).
- t) Langileen gastuen zerrendari buruzko zinpeko aitorpena, ordainsari-kontzeptuak eta Gizarte Segurantzaren enpresa-kostua banakatuta.
- u) Diruzainaren adierazpena, hitzarmenari atxikitako langileen nominen ordainketari buruzkoa.
- v) TC2 eta TC1 likidazioak, azken horren ordainketak justifikatzeko.
- w) Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren konturako atxikipenak ordaindu izanaren egiaztagiriak, langile propioei dagozkienak zein profesionalek emandako fakturretatik eratorritakoak. Hiruhileko 110 ereduak eta ordainketa-egiaztagiriak, eta azken laburpena (190 eredu).



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



ASOCIACIÓN DE PERSONAS SORDAS DE ÁLAVA
ARABAKO PERTSONA GORREN ELKARTEA

"ARABAKO GORRAK"
Palencia, 6 bajo • Tfn. • Fax: 945 28 69 48
E-mail: arabakogorak@telefonica.net
01002 VITORIA-GASTEIZ

Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava

- x) Hala badagokio, 2.b atalean aipatutako zerrendan jasotako kostu orokorrak eta/edo zeharkakoak banatzeko irizpideak.
- y) Diruz lagundutako jarduera finantzatzeko jaso diren bestelako diru-sarrera edo dirulaguntzen zerrenda, zenbatekoa eta jatorria zehaztuta, horiek oraindik kobratu ez badira ere.
- z) Elkarteak, hala badagokio, eskatu beharreko hiru aurrekontuak, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 29.3 artikuluan ildotik.
- aa) Erabili gabeko soberakinik izanez gero, itzulketaren ordainketa-gutuna, baita horietatik eratorritako interesena ere.

bb) Eta Administrazio Publikoak eskatzen dizkion egiaztagiri guztiak, dokumentu-formatuan.

Abenduaren 31rako ezin izan bada aurkeztu 1. eta 2. puntuetan adierazitako egiaztagirietakoren bat, horien zerrenda bat aurkeztu beharko da.

Abenduaren 31rako aurkeztu ezin izan diren agiriak aurkezteko azken eguna 2024ko urtarrilaren 31 izango da. 1. eta 2. ataletako dokumentazioa ez bada osorik aurkeztu abenduaren 31n, eguneratu egin beharko da adierazitako datarako.

4. hiruhilekoko 180, 190 eta 110 ereduak (ordainagiriarekin batera) aurkezteko azken eguna 2024ko otsailaren 15a izango da.

Foru Administrazioak dirulaguntza behar bezala aplikatu dela egiaztatzeko egokitzen jotzen dituen agiriak edo egiaztagiriak eskatzeko eskubidea izango du. Fakturak eta/edo ordainagiriak gastuen justifikazio gisa onartzeko, ezinbestekoa da haietan honako datu hauek argi eta garbi identifikatuta egotea:

- Jaulkitzailea, haren izena edo izen soziala eta NAN edo IFZ adierazita.
- Jasotzailea, haren izena edo izen soziala eta NAN edo IFZ adierazita.
- Gastuaren xedea.
- Data.
- Faktura-zenbakia.

Faktura elektronikoak aurkeztuz gero, horien formatua Factura-e estandarren arabera izango da. Elektronikoki sinatutako beste edozein dokumentu aurkeztuz gero, konfiantzazko zerbitzu elektronikoaren emaile kualifikatuen konfiantzazko zerrendan dauden ziurtagiriak (<http://sede.minetur.gob.es/Prestadores>) onartuko dira.

Halaber, ez dira justifikazio-gastu gisa onartuko zerga-araudia betetzen ez duten fakturak edo ordainagiriak.

BEZa Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak finantza dezakeen gastutzat hartu ahal izateko, erakundeak BEZari buruzko Foru Arauaren hirugarren artikuluko baldintzak bete beharko ditu Arauaren 20. artikuluko lehenengo ataleko 8. apartatuan jasotako zergaren salbuespena aplikatzeko. Horregatik, hitzarmen hau sinatuta, ARABAKO GORRAK elkarteak baimena ematen dio Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari informazio hori administrazio eskudunari eskatzeko.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



ASOCIACIÓN DE PERSONAS SORDAS DE ÁLAVA
ARABAKO PERTSONA GORREN ELKARTEA

"ARABAKO GORRAK"
Palencia, 6 bajo • Tfno. • Fax: 945 28 69 48
E-mail: arabakogorak@telefonica.net
01002 VITORIA-GASTEIZ

Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava

4) Gasteizko Udalari:

Hitzarmenaren indarraldia amaitzen denerako, eta nolanahi ere 2024ko urtarilaren 31 baino lehen, elkarteak agiri hauek aurkeztu beharko dizkio Gasteizko Udaleko Bizikidetza eta Aniztasun Zerbitzuari, zehaztapen hauen arabera:

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 30. artikuluan xedatutakoaren arabera, diruz lagundutako jardueraren aurrekontuaren % 100 justifikatu beharko da, ez Gasteizko Udalak emandako kopurua bakarrik, eta berariaz adierazi beharko da zein gasturen kostua egozten zaion Udalak emandako dirulaguntzari.

Justifikazioko kontu arruntak honako hauek jaso behar ditu:

1.- Egindako proiektuaren azalpen-memoria, lortutako emaitzen balioespena barne. Horretarako honako agiri hauek erantsi beharko dira:

- Dirulaguntza jaso duen jarduera dela eta egindako azterlan, egitarau, argitalpen, kartel eta bestelako dokumentazio grafiko nahiz idatziaren ale bana.
- Euskararen erabileraren jarraipena egiteko fitxa.

b.2. Jardueren kostua justifikatzen duen memoria ekonomikoa, justifikazioko kontu arruntaren ereduaren arabera. Eranskin hauek izan beharko ditu:

1. atala: funts propioen edo beste erakunde batzuetatik jasotakoen justifikazioa.

Proiektua edo jarduera hainbat entitate publikok edo pribatuk finantzatzen badute edota entitate onuradunaren funts propioekin finantzatzen bada bete beharko da eranskin hori.

2. atala: diruz lagundutako proiektuari dagozkion gastu-egiaztagirien zerrenda.

Udal dirulaguntzari egozten zaizkion gastuak justifikatzeko bete beharko da eranskin hori. Gastu motak zerrendatu eta alderdi hauek zehaztu beharko dira, bertan adierazten den moduan: hartzekoduna, kontzeptua, data eta zenbatekoa. Jatorrizko fakturak eta ordaindu direla egiaztatzen duten agiriak erantsi beharko zaizkio.

Eskudirutan ordaintzekotan, legez ezarritako mugapena aintzat hartu beharko da —webgune honetan kontsulta daiteke: www.agenciatributaria.es—.

Egindako jarduerak beste modu batez egiaztatu ezin direnean bakarrik onartuko dira jaso-izanaren agiriak. Edonola ere, jasotze-agiria sinatzen duen pertsona ezin izango da enpresaburua edo profesionala izan, kasu horretan dagokion faktura egin eta eman beharko baitu ezinbestean.

Jasotze-agiriak datu hauek hartu beharko ditu barne:

- Jaulkitzailearen zein jasotzailearen izen-deiturak, IFZ eta helbidea.
- Gauzatutako eragiketaren edo zerbitzuaren deskribapen zehatza, eta haren prezio osoa.
- PFEZaren atxikipena (dagokion zerga-agentzian ordaindu dela egiaztatzen duen agiria erantsi behar da).
- Tokia, data eta jasotzailearen sinadura.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



ASOCIACIÓN DE PERSONAS SORDAS DE ÁLAVA
ARABAKO PERTSONA GORREN ELKARTEA

"ARABAKO GORRAK"
Palencia, 6 bajo • Tfno. • Fax: 945 28 69 48
E-mail: arabakogorak@telefonica.net
01002 VITORIA-GASTEIZ

Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava

3. atala: proiektu edo jardueraren diru-sarrera eta gastuen balantzea.

4. atala: Langile-gastuak eta Gizarte Segurantzakoak.

Dirulaguntza jaso duen proiektuko langile-gastuak eta Gizarte Segurantzakoak justifikatzeko bete beharko da eranskin hori, eta entitate edo pertsona onuradunaren kontura izan diren nominak eta TC agiriak (egungo RNT eta RLC agiriak) atxiki.

5. atala: gastu, dieta eta bidaien banan-banako likidazioa.

Eranskin hori beteko da bidaia, dieta, joan-etorri, mantenu eta antzekoen gastuak justifikatzeko. Gastu horiei dagozkien merkataritza-agiriak erantsi egingo dira —erabilitako garraiobidearen txartelak, tiketak, fakturak...—, zenbatekoa zehazteko oinarri baitira.

Erantzukizunpeko adierazpena, alderdi hauei buruz:

Fakturak eta ordainagiriak aurreikusitako helburu edo xedea gauzatzetik sortu direla eta Gasteizko Udalaren ekarpenarekin finantzatu direla jasotzen duen adierazpena.

Onuradunak proiektua gauzatzeko soldatapeko langilerik ez duela jasotzen duen adierazpena (beharrezkoa bada).

Onuradunak diruz lagundutako jarduerari egozten dizkion zeharkako kostuen aitorpena, oro har onartutako kontabilitate printzipio eta arauen arabera dagokion zatian, eta kontuan izanik horiei egotzitakoa ezin izango dela inolaz ere zeharkako kostuen % 10 baino gehiago izan.

Pertsona edo entitate onuradunaren erantzukizunpeko adierazpena, non zehazten diren diruz lagundutako jarduera finantzatzeko baliatu diren bestelako diru-sarrera edo dirulaguntzak —zenbatekoak eta jatorriak—.

Kontratu txikien zenbatekoa gainditu arren dirulaguntza jaso dezaketen gastuak:

Diruz lagundu daitekeen gastuaren zenbatekoa 39.999 eurotik gorakoa bada obra-kontratuetan (BEZik gabe), eta 14.999 eurotik gorakoa hornidura- eta zerbitzu-kontratuetan (BEZik gabe), pertsona edo entitate onuradunak gutxienez hiru hornitzailei eskatu beharko die eskaintza egiteko, obra egin, zerbitzua eskaini edo ondasunak emateko konpromisoa hartu aurretik, salbu eta haren ezaugarri bereziak direla eta merkatuan ez badago lan hori egin, zerbitzu horiek eskaini edo ondasun horiek hornitzen dituen aski entitate, edo dirulaguntza eman aurretik gastua egin bada.

Hamaikagarrena.- Hitzarmenaren xede den programaren inguruko balorazio, orientazio, laguntza eta jarraipena egiteko, eta bertako klausulak interpretatzeko, bitariko batzorde tekniko bat eratuko da, honako hauek osatua:

- Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak izendatutako pertsona bat; teknikari horrek egingo du hitzarmenaren etengabeko jarraipena.
- ARABAKO GORRAK elkarteak izendatutako pertsona bat.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



ASOCIACIÓN DE PERSONAS SORDAS DE ÁLAVA
ARABAKO PERTSONA GORREN ELKARTEA

"ARABAKO GORRAK"
Palencia, 6 bajo • Tfno. • Fax: 945 28 69 48
E-mail: arabakogorak@telefonica.net
01002 VITORIA-GASTEIZ

Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava

Batzorde hori gutxienez urtean hiru aldiz bildu beharko da, aurrekontuaren aurreproiektua aurkezten denean, behin betiko ixten denean eta hurrengo ekitaldirako programa aurkezten denean. Batzorde horrek gaiaren berri duten langileen aholkuak jaso ahal izango ditu, gaiaren inguruan sor daitezkeen gaitan. Dena dela, egokitzen jotzen duten guztietan bildu ahalko da batzordea, aldeetako batek hala eskatuta.

Halaber, hitzarmenaren jarraipena egiteko beharrezkotzat jotzen duen informazio guztia eskatu ahal izango du.

Hamabigarrena.- ARABAKO GORRAK elkartearen erantzukizuna izango dira hitzarmen hau gauzatzeak dakartzan berezko betebeharrak betetzetik zuzenean edo zeharka eratortzen diren gorabeherak, edozein motatakoak direla ere.

Gorabehera horiengatik izan daitezkeen edozein erantzukizuni aurrea hartzeko, elkarteak aseguru-poliza bat sinatu eta ordaintzeko konpromisoa hartzen du, hitzarmen hau gauzatzeak ekar litzakeen erantzukizunak betetzea bermatzeko, eta esku hartzen duen Administrazioak ez du inolako erantzukizunik izango horri dagokionez. Hitzarmen hau sinatzean, elkarteak poliza horren kopia eta dagokion ordainagiria ordaindu izanaren egiaztagiria aurkeztu beharko ditu.

Hamahirugarrena.- Hitzarmen hau sinatzen den egunean sartuko da indarrean, eta 2023ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arte izango du eragina.

Hamalauugarrena.- Alde biek adierazten dute ezagutzen dituztela Gizon eta emakumeen arteko berdintasun eraginkorrerako 2007ko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan, Gizon eta Emakumeen Berdintasunerako Eusko Legebiltzarraren 4/2005 Legean eta Arabako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Foru Planean jasotako xedapenak, eta beren gain hartzen dute genero-ikuspegia txertatzeko konpromisoa, bereziki hizkuntzaren eta irudien erabilera ez sexista zaintzekoa eta datuak sexuaren arabera bereizita bildu eta aurkeztekoa.

Hamabosgarrena.- Bi aldeek adierazten dute ezagutzen dituztela Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduarekin lotutako xedapenak — Datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen ditu horrek, eta 95/46/EE Zuzentaraua (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra) indargabetzen— eta Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, baita une bakoitzean aplikatzekoa den datuen babesaren arloko gainerako araudia ere, eta konpromisoa hartzen dute xedapen horietan aurreikusitako eskakizunak betetzeko hitzarmen honen barruan pertsona fisikoengandik lortu eta erabilitako datuei dagokienez.

Hamaseigarrena.- Hitzarmen hau suntsiarazteko arrazoiak, prozedura eta ondorioak.

1.- Suntsiarazteko arrazoiak:

- a. Edozein prozeduratan kaudimengabe deklaratu izateak eta, konkurtsoaren kasuan, likidazio-fasea irekitzeak hitzarmena suntsiaraztea ekarriko du beti.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



ASOCIACIÓN DE PERSONAS SORDAS DE ÁLAVA
ARABAKO PERTSONA GORREN ELKARTEA

"ARABAKO GORRAK"
Palencia, 6 bajo • Tfno. • Fax: 945 28 69 48
E-mail: arabakogorak@telefonica.net
01002 VITORIA-GASTEIZ

Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava

Konkurtsio-deklarazioaren kasuan, eta likidazio-fasea irekitzen ez den bitartean, Administrazioak hitzarmenarekin jarraitu ahal izango du, baldin eta elkarteak, haren ustez, behar besteko bermeak ematen baditu hitzarmena betearazteko.

- b. GOFeren eta elkartearen arteko adostasuna.
- c. Hitzarmenak berekin dakartzan betebeharrak ez betetzea.
- d. Elkartearen nortasun juridikoa iraungitzea.
- e. Hitzarmenaren izaerarekin lotutako beste edozein.

2. Suntsiarazteko prozedura:

- a. Hitzarmena onetsi zuen organo berak erabakiko du suntsiaraztea, ofizioz edo elkarteak eskatuta, hala badagokio.
- b. Suntsiarazteko arrazoia aldeetakoren bati egozterik ez den kasuetan bakarrik suntsiarazi ahal da hitzarmena bi aldeak ados jarrita.
- c. Hitzarmena suntsiarazteko proposamena GOFek egiten badu, hamar egun naturaleko entzunaldia emango zaio elkarteari. Alegaziorik aurkezten ez badu, ez dagoela hitzarmena suntsitzearen kontra joko da.
- d. Aldez aurretik txostena eskatuko zaio beti zerbitzu juridikoari.

3.- Suntsiarazpenaren ondorioak:

- a. Kontratua bi aldeen adostasunez suntsiarazten bada, alderdiek balio osoz erabakitakoari egokituko zaizkio beren eskubideak.
- b. GOFek hitzarmeneko betebeharrak betetzen ez baditu, elkarteari sortutako kalte-galerak ordainduko zaizkio, oro har.
- c. Hitzarmena elkartearen ez-betetze errudunagatik suntsiarazten denean, GOFek sortu zaizkion kalte-galerak eskatu ahal izango ditu.
- d. Bestela, hitzarmenaren xedearekin lotuta ordaindu diren edo ordaintzeke dauden zenbatekoak erregularizatuko dira.

Hamazazpigarrena.- ARABAKO GORRAK elkarteak konpromisoa hartzen du hitzarmen honen xede diren programen publizitatean Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen lankidetzaz agerrarazteko.

Hitzarmen honen xedearekin zerikusia duten komunikazio-, publizitate- eta propaganda-ekintza guztietan, emakumeak eta gizonak barne hartzen dituen hizkera inklusiboa erabili beharko da, baita pertsonak pareko giza duintasunaren jabe gisa aurkezten dituzten irudiak ere, haien sexua edozein dela ere. Era berean, Arabako Foru Aldundiaren aldez aurreko baimena izan beharko dute, eta aldundiak irudi korporatiboaren inguruan ezartzen dituen jarraibideak bete beharko dituzte. Era berean, deialdia egin aurretik adostuko da edozein ekitaldi publiko edo pribatu, aurkezpen, sari-banaketa, amaiera-



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



ASOCIACIÓN DE PERSONAS SORDAS DE ÁLAVA
ARABAKO PERTSONA GORREN ELKARTEA

"ARABAKO GORRAK"
Palencia, 6 bajo • Tfno. • Fax: 945 28 69 48
E-mail: arabakogorak@telefonica.net
01002 VITORIA-GASTEIZ

Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava

ekitaldi eta antzekoen antolaketa (datak, ordutegiak, ekitaldiaren garapena, gonbidatuak, etab.), eta Aldundiaren onespina beharko dute. Nolanahi ere, ekitaldi horietako lehendakaritza eta presentzia aktiboa hitzarmen hau sinatzen dutenei baino ez dagokie, eta AFAko Protokolo eta Harreman Publikoen Zerbitzuak arautuko du.

Hemezortzigarrena.- Hitzarmen hau administrazio-zuzenbideko arau aplikagarrien mende dago, baita Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauan eta oro har aplikatu beharreko gainerakoetan xedatutakoaren mende ere.

Era berean, osagarri gisa, Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 1eko 8/2011 Foru Dekretua aplikatuko da, Gizarte Politiken Sailaren eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen dirulaguntzak emateko oinarri orokor arautzaileak onartzen dituenak.

Eta, adierazitako guztiarekiko adostasunaren eta oniritziaren erakusgarri, agiri honen bi ale izenpetzen dituzte aldeek, goiburuan adierazitako leku-egunetan.

GORKA URTARAN AGUIRRE

Gizarte Politiken foru diputatua eta Gizarte
Ongizaterako Foru Erakunde
Administrazio Kontseiluko lehendakaria

MAIDER ETXEBARRIA GARCIA

Vitoria-Gasteizko Udaleko alkate
lehendakaria

RICARDO PEREZ SANTOS

"ARABAKO GORRAK", Arabako pertsona gorren elkarte



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



ASOCIACIÓN DE PERSONAS SORDAS DE ÁLAVA
ARABAKO PERTSONA GORREN ELKARTEA

"ARABAKO GORRAK"
Palencia, 6 bajo • Tfno. • Fax: 945 28 69 48
E-mail: arabakogorak@telefonica.net
01002 VITORIA-GASTEIZ

Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava

ERANSKINA - 2023KO AURREKONTUA

Kontzeptuak	Oraingo aurrekontua- 2023
GASTUAK:	
1.- Langile-gastuak	
Langileen soldatak	42.595,94
Dietak eta kilometroak	500,00
Ordezkapenak (absentziak, oporrak)	2.000,00
Gizarte Segurantzaren kuota (% 32)	14.329,37
Langileen beste gastu batzuk	500,00
Langileen gastuak guztira	59.925,31
2.- Funtzionamendu gastuak	
Kanpoko aholkularitza zerb.	3.484,87
Kanpoko interpreteak	-
Kanpoko garbiketa zerb.	500,00
Beste gastu batzuk	1.801,28
Funtzionamendu gastuak, guztira	5.786,15
GASTUAK, GUZTIRA	65.711,46
DIRU-SARRERAK	
1.- Sarrera propioak	
Beste diru-sarrera batzuk	-
Diru-sarrera propioak, guztira	0,00
2.- Erakunde pribatuen eta publikoen diru-sarrerak	
Euskal Gorraek elkartearen ekarpena	15.721,46
Gasteizko Udalaren dirulaguntza	22.000,00
AFA-GOFEn dirulaguntza	27.990,00